


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Ekonomia eta Enpresa Fakultatea



Donostia

NEKAZARITZA-MARKETINEKO TERMINOLOGIAREN AZTERKETA

GRADU AMAIERAKO LANA

GRADUA: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza

Egilea: ANE SALABERRIA QUIRCE

Tutoreak: JOSE MARIA ARRIOLA

MIRENE BEGIRISTAIN

2017/2018

AURKIBIDEA

LABURPENA	3
HELBURUAK:	3
JUSTIFIKAZIOA:	3
METODOLOGIA:	3
EMAITZAK:	5
ONDORIOAK:	5
AURRERAKIAK ETA MOTIBAZIOA.....	6
HELBURUAK	8
1. <i>Termino-zerrenda eleanitzun bat osatzea eta TZOSen jartzea:.....</i>	8
2. <i>Testuen hizkuntzaren zuzentasuna gainbegiratzea:</i>	8
3. <i>Termino-zerrendaren zenbait iturrirekiko erkaketa:</i>	8
4. <i>Terminoak etiketa bidez sailkatzea:</i>	9
METODOLOGIA	10
1. <i>Termino-zerrenda osatzea.....</i>	10
2. <i>Termino-zerrenda aztertzea</i>	12
EMAITZA	13
1. <i>Osatutako termino zerrendaren ezaugarrien emaitza</i>	13
2. <i>TZOS datu-basearekiko erkaketaren emaitza.....</i>	15
3. <i>Terminoien datu-base terminologoekiko eraketaren emaitza</i>	17
4. <i>Termino-zerrendaren sailkapenaren emaitza</i>	19
EZTABaida.....	20
ONDORIOAK.....	23
BIBLIOGRAFIA	24

LABURPENA

Helburuak:

UPV/EHUko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako gradu amaierako lan honen helburua gradu honetako irakasle den Miren Begiristainen *Nekazaritza ekologikoaren elikagaien banaketa politikaren kudeaketa iraunkorra: adierazle sistema holistiko-agroekologikoaren proposamena* tesiaren laburpenaren eta nekazaritza-marketinaren barruan sartzen denaren terminologia erreala biltzen duen hizkuntza ezberdinakoa zerrenda bat egitea da. Horrekin batera, Ekonomia Zientzien esparruan, eta batez ere nekazaritza-marketinean, euskarazko terminologia erreala garapen eta finkapenean ekarpen bat egin nahi dugu eta termino horiek tesiaren eta baita bere laburpenean ere nola erabiltzen diren erakutsi. Kasu honetan eta tesiaren azterketa nekazaritza ekologikoan zentratzen denez, eta gai hau gaur egun nahiko berria denez, erabilitako terminologia berria dela adieraztea garrantzitsua dela uste dugu, beraz, honek izan ditzaken duda edota arazoak gure lan honekin konpontzea eta argitzea espero dugu.

Justifikazioa:

Azaltzea dagokigun lan hau, gaur egungo euskararen normalizazioan ekarpen bat egiteko helburua duen Terminologia Sareak Ehunduz (TSE)¹ programaren inguruau kokatzen da: adituen arteko sareak sortzea, terminologia partekatzea, begi bistean jartzea eta denon esku jartzea lortu nahi da eta honela, euskararen normalizazioari ekarpen bat egin ahal izateko.

Metodologia:

Garaterm lan-ingurunean² TSE programarako, hau da, Terminologia Sareak Ehunduz programarako garatutako metodologia³ jarraitu dugu, eginiko lanari ekarpenak eginez eta honela gure lana erraztuz. Lehenengo fasean, nekazaritza-marketineko terminoen zerrenda osatu dugu. Lehenik eta behin, nekazaritza-marketinaren terminologiaren azterketaren lanaren tutoreek *Nekazaritza ekologikoaren elikagaien banaketa politikaren kudeaketa iraunkorra: adierazle sistema holistiko-agroekologikoaren proposamena* tesiaren laburpena igo dute Garaterm lan-ingurunera. Jarraian, lan-ingurune berean barneratua dagoen Erauzterm termino erauzleak termino-hautagaien zerrenda bat sortu digu, terminologia erreala erdiautomatikoki erauziz. Termino erauzle horren bitartez lorturiko termino zerrendako hautagaiak eskuz balioztatu ondoren, euskarazko terminoen zerrenda lortu dugu eta, gaztelania eta ingelesezko ordainak bilatuz, nekazaritza-marketin arloan erabilitako terminoen zerrenda eleanitzuna osatu


¹ http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/tse-programa/

² http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/

³ Zerbitzu-marketineko terminologiaren azterketa (Yon Oyarzabal, 2016) Gradu Amaierako Lana izan dut eskura jarraibide metodologiaren atala osatzeko garaian.


dugu. Behin hura osatu ondoren, etorkizuneko lan gisa Terminologia Zerbitzurako Online Sistemaren⁴ (TZOS) kontsultagai jartzea posible izango litzateke, ikusgai egoteko eta denon eskura egoteko.

Bigarren faseari dagokionez, lortu dugun edota balioztatu dugun termino-zerrenda osoaren azterketa burutzean datza. Lehenik eta behin, balioztatu ditugun termino guztiak azterketa egin dugu, TZOSen eta Euskalterm⁵ datu-base terminologikoan jasota dagoen terminologiarekin erkatu dugu eta, azkenik, termino-zerrenda guzta etiketa desberdinez sailkatu dugu, terminoen sailkapen sakonagoa eta zehatzagoa lortuz.



Iturria: norberak egina

I irudia: lehenengo faseen eskema.



Iturria: norberak egina

2 irudia: termino-hautagaien balioztatze faseen eskema.

⁴ <http://tzos.ehu.es/?setuilang=eu>

⁵ <http://www.euskara.euskadi.eus/r59-euskalte/eu/q91EusTermWar/kontultaJSP/q91aAction.do>

Emaitzak:

Lortu dugun emaitzaren arabera, gure termino-zerrendako terminoen konplexutasunari dagokionez, gehienak bi osagaikoak (% 47,43) eta hiru osagaikoak (% 41,91) dira, non honek adierazten duen gure termino-zerrendako terminoen gehiengoa konplexutasun ertain-altukoak direla. Bestalde, gure amaierako termino-zerrendan bildu ditugun terminoetatik Euskalterm datu-banku terminologikoan gehienez ere, % 13,24 daude jasota eta TZOSEN % 6,62. Alegia, gainerako zerrendako terminoen gainerako guztiak lan honi esker jaso dira.

Amaitzeko, gure termino-zerrendaren azterketa sakona egiterakoan eta Mireneren laguntzarekin terminoak beste maila batean sailkatzea lortu dugu. Alde batetik, nekazaritza-marketingaren esparruaren barruan zehatzagoak direnak adierazi ditugu eta bestetik, orokorragoak direnak, honela zehaztasun maila sakonago batera iritsiz.

Ondorioak:

Lan honen amaieran lortuko dugun termino-zerrenda eleanitzun honekin, irakasle euskaldun guztien artean komunikazio-sareak sortzeko eta hiztegiak eta horrelakoak egiten dituztenek terminologia erreala ere kontuan hartzeko lana gure esku egon da eta bete dugu. Horrez gain, egindako lan guztiaren ekarpena zabaltzeko eta erabilgarritasun handiagoa izateko, TZOSEN kontsultagai jartzearekin batera, esparru honetan interesa jartzen duen pertsona ororen, bai ikasle, bai beste edozein, artean zabaldu daiteke eta marketinarekin zerikusia duten beste edozein irakasgai edota arloekin alderatu daiteke, baita hezkuntza mundutik kanpo egiten diren ikerketa edota espezializazioekin ere, hauetan guztieta erabilitako terminologian egon daitezkeen desberdintasunak aztertzeko eta horiek erabiltzen dituzten orori informazioa eskura jartzeko.

AURRERAKIAK ETA MOTIBAZIOA

Lan hau egin ahal izateko behar izan dugun tresna aukeratzeko orduan edota erabakitzeko orduan 2008an Garaterm⁶ egitasmoari esker abiatutako TSE programa, hau da, Terminologia Sareak Ehunduz programa erabiltzea erabaki dugu. Programa hura EHUKo Euskararen Errektoreordetzaren laguntzarekin jarri zen martxan eta euskararen normalizazioan EHUn lantzen diren espezialitate alorretako terminologiaren garapenean eta finkapenean aritu da azken urteetan.

Garaterm proiektuarekin lanean ari zirenean euskarazko erregistro espezializatuen garapenean laguntzeko beharra ikusi zuten eta bi lerro nagusiren inguruan zentratu ziren: alde batetik, arlo akademikoaren inguruan euskarazko erregistro espezializatu egoki bat bermatzeko dauden beharren inguruan, eta beste alde batetik, euskararen estandarizazio eta normalizazio-prozesuan.

Modu horretan, Euskal Herriko Unibertsitatean euskaraz lantzen diren espezialitate alorretako erregistro espezializatuen garapen prozesuan hainbat arazorekin aurkitzen garela ohartu ziren. Alde batetik, irakasleek beraien testu espezializatuetan sortzen dituzten testuen kalitatea bermatzeko arazoak daude, irakasle batzuen hizkuntza-gaitasun orokorra dela eta. Lan honen kasuan, adibidez, Miren Begiristainen tesiaren⁷ laburpena erabili dugu, lehenagotik adierazi dugun moduan, eta bertako terminologia gaiarekin batera berria denez oraindik gaur egun, irakasleak erabili duen terminologiaren azterketa egin dugu. Garaterm lan-ingurunearen bitartez lortu dugu termino horien azterketa betetzea eta erabilgarri edota onargarri diren terminoak balioztatzea. Bestetik, euskararen normalizazio ezetik datozen arazoak, eta hauen bukaera emateko, terminologia lanerako erabiltzen den metodologiatik etor litezkeenak. Lan honen bitartez eta hau betetzen joaten garen heinean arazo horiek gainditzen laguntzen saiatuko gara.

Arazo horietan sakontzea beharrezkoa denez, TSE programan normalizatu gabe egotearen ondorio diren hainbat zailtasun detektatu dituzte aztertutako testu akademikoan, hau da, irakaslearen tesiaren laburpenean: alde batetik, gaiari dagokionez bertako bai ideiak eta baita terminologia ere berriak direnez, lehenagotik adierazi dugun moduan, kode estandar bat eskura ez edukitzeak zalantzhan jartzen die terminologia berri hura erabili behar dutenei. Eremu honetako, hau da, nekazaritza ekologikoaren eremuko etandarizazio-prozesua amaitu gabe dagoenez, oraindik arau gehienak ezarri gabe daude. Beste alde batetik, espezialitate berri horretako alorretako erregistroen garapena eta finkapena egin ahal izateko beharrezkoa den denbora hori guztia edukitzea ezinezkoa izan denez eta adituen arteko komunikazio-sareen falta dela eta, terminologia eta fraseologiaren alor askotan terminologia errealaren falta handi bat dago. Esan

⁶ Garaterm

http://garaterm.ehu.es/garaterm_ataria/en

⁷ “Nekazaritza ekologikoaren elikagaien banaketa politikaren kudeaketa iraunkorra: adierazle sistema holistikoa-agroekologikoaren proposamena” tesi (Miren Begiristain, 2016)

beharra dago, azkeneko horri informazioa gehituz, ikasle eta irakasleen arteko komunikazio-sareak arinak izan arren, irakasleen artean horrelako sareen falta dago.

Azkenik, terminologiari buruz egin behar dugun lanerako oinarri teoriko-metodologiko egokiak erabili behar dira. TSE programaren bitartez eta gure lanerako oso garrantzitsua den interes gunea da aztertzea adituek beraien lanetan edota esparru honi buruz lan egiten dutenean erabiltzen duten terminologia erreala nolakoa den, nondik edo nola sortzen den eta nola aldatzen den egoeraren arabera. Hau dela eta, esparru honetako ikerketak bete ahal izateko, beharrezkoa da adituek erabiltzen dituzten testuak edota sortzen dituzten testuak ondo antolatutako corpus batean jasotzea, eta horretarako erabili dugu Garaterm corporusa⁸. TSE programarekin batera, ikerketa, garapen eta irakaskuntza oro uztartzen dituen lan-ingurunea da hura, non horri esker, erregistro akademiko eta espezializatuak iker daitezkeen eta erregistro akademikoen garapenean diharduten adituekin lan egitearen ondorioz, unibertsitate-irakaskuntzan eta jakintza-alor espezializatuetan erabiltzen diren dokumentuak jasotzeko metodologia hobetzen joan den pixkanaka-pixkanaka.

8 Garaterm corporusa TSE programako partaideentzako dago konsultagai:
<http://ixa2.si.ehu.es/garaterm-kontsulta/cgi-bin/kontsulta.py>

HELBURUAK

1. Termino-zerrenda eleanitzun bat osatzea eta TZOSen jartzea:

Euskal Herriko Unibertsitateko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako ikasketen gradu amaierako lan honen helburu nagusia, nekazaritza-marketineko terminologia erreala biltzen duen terminoen zerrenda eleanitzun bat egitea eta osatzea da. Horren bitartez eta esparru honetan dagoen euskarazko terminologiaren eskasia ikusirik, Ekonomia Zientziei dagokien esparruan euskarazko terminologia erreala garapen eta zehaztapenean ekarpen bat egin nahi dugu eta lantzen ditugun terminoak, bai aztertzen ari garen testuan eta baita hemendik aurrera esparru honi buruz idatziko diren testu guztietai, nola erabiltzen diren erakutsi nahi da, hiztegi edota datu-base terminologikoetan ez baita erabilera erreala bere osotasunean jasotzen, baina Euskaltermen, adibidez, neurri batean jasotzen dela behintzat. Gainera, gure kasuan eta lehenagotik adierazi dugun moduan lantzen ari garen esparruan, hau da, nekazaritza-marketinean eta zehatzago esanda, nekazaritza ekologikoaren marketinean, gaur egun oraindik esparru honetan erabiltzen den terminologia jasotzeke dago. Beste alde batetik, terminoak ikusgai jarri, irakasleek beraien arteko sareak sortzea eta dinamizatzea lortzen da, elkarlanean arituz eta honela beraien baliabide eta jakintza linguistikoak partekatuz, pixkanaka-pixkanaka eztabaidatuz eta finkatzen joanez. Gainera, honen bitartez eta tresna honi esker, gaiari buruzko adituek edota testu espezializatuak idatzi nahi dituztenek, eskura izango dute gure termino-zerrenda edozein duda edota akats konpontzeko.

2. Testuen hizkuntzaren zuzentasuna gainbegiratzea:

Miren Begiristainen tesiaren laburpena Garatermera igo ondoren, Erauzterm termino erauzleak 1999 terminoko zerrenda bat osatu du, horiek guztiak erdiautomatikoki erauziz. Horien guztien artean, gure ezagutzari esker terminoak eskuz balioztatu ditugu, hau da, gure ustez nekazaritza-marketinean egokitzen den terminoak aukeratu ditugu. Gure lanaren ondorioz lortu dugun termino-zerrendan jasotako terminoak linguistikoki zuzenak izateko hizkuntzaren alde guztietatik gainbegiratu ditugu. Lan honen barruan, marratxoaren erabilera kin lotutako zuzenketak egin ditugu batik bat, esaterako. Lan guztiari esker, lortu dugun termino-zerrendaren eleanitzasun mailari egokia dela adierazi behar dugu.

3. Termino-zerrendaren zenbait iturrirekiko erkaketa:

Termino-zerrenda TZOSen eta Euskalterm datu-base terminologikoan lehenago bildutako terminologiarekin alderatuz lan honekin egin den ekarpena balioztatzea lortu dugu, aztertutako testuan erabiltzen den terminologia konsulta-baliabide horietan zenbateraino kodifikatua dagoen ikusi ahal izateko.

Alde batetik, TZOSen bilduta dauden terminoak izango genituzke: baliabide natural, lur, hondakin organiko, hondakinen kudeaketa... eta beste aldetik, Euskalterm datu-base terminologikoan bilduta dauden terminoak: basoen kudeaketa, energia berriztagarri, permakultura, eta abar.

4. Terminoak etiketa bidez sailkatzea:

Lortu dugun termino-zerrenda osatzen duten terminoak alfabetikoki ordenatu beharrean, nekazaritza-marketineko edukiak argi eta zehatz geratzeko, terminoak etiketa ezberdinen bidez sailkatuko ditugu. Modu horretara informazio gehiago eta zehatzagoa lortuko dugula. Aurrerago ikusiko dugun moduan, gure termino zerrendako termino oro bi mailatan banatu ditugu; alde batetik, nekazaritza-marketinaren esparruaren barruan orokorrago diren terminoak ditugu eta beste alde batetik, lantzen ari garen esparruaren barruan zehatzagoak diren terminoak. Banaketa hori Mirene Begiristain irakaslearen eta tesiaren sortzailearen laguntzaz egin dugu, lantzea dagokigun marketin esparru honi buruzko bere ezagutza gure probetxurako erabiliz.

METODOLOGIA

Gradu amaierako lan hau burutu ahal izateko eskura izan dugun programak, hau da, Terminologia Sareak Ehunduz (TSE) programak eskaintzen dizigun baliabide eta metodologiaren bitartez lortu dugu. Lan honetan, bi fase ezberdin bereizi ditugu: lehenik eta behin, termino-zerrenda osatzea eta bigarrenik, honen azterketa egitea.

1. Termino-zerrenda osatzea

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza graduoko nekazaritza ekologikoari buruz hitz egiten duen testua, gradu amaierako lan honetako bi tutoreek Garaterm lan-ingurunera igo dute, nahiz eta marketinaren munduan mota ezberdinekoak egon, esparru honetan lan egitea erabaki dugu.

Lehenagotik adierazi dugun testua kontsultagai jarri da Garaterm izeneko corpusean TSE partaideentzat eta, horren ondoren, lan-ingurune berean integraturik dagoen Erautzterm termino-erauzleak, hainbat estrategia linguistiko eta baita estrategia estatistikoen bitartez terminologia erreala erdiautomatikoki erauziz, hautagaien proposamen-zerrenda bat eman digu. Adierazi berri dugun erauzitako euskarazko termino-zerrenda guztitik, balioztatze-lanari hasiera emanez hainbat termino-hautagai lortu ditugu eta ondoren, lorturiko termino-hautagai horiek behin eta berriz begiratu ditugu, terminoak modu egokian zehatztuz eta honela lana bermatuz. Hori guztia egin ondoren, euskarazko terminoak goitik behera egiaztu eta aztertu dira hainbat zuzenketa eginik. Horrekin batera, benetan euskarazko termino-zerrenda egokia lortu ahal izateko, hori baita guk nahi duguna, bai gaztelania eta baita ingelesezko ordainak bilatu ditugu, horrela, tesiaren laburpenean erabilitako terminoen termino-zerrenda zabala, zehatza eta eleanitzuna lortuz.

Adierazi beharra dago, termino hauen guztien artean aldakiak detektatzeko garaian, termino-zerrendako terminoek denominazio aldakiak eta kontzeptu aldakiak ere izan ditzaketela erabilera errealean eta, gure kasuan, bai kontzeptu aldetik edota bai denominazio aldetik berdinak diren terminoak aldakitzat hartu ditugu. Kontzeptuari dagokionez, aldakiak diren terminoak, hauek banan-banan pixkanaka aztertzen detektatu ditugu, eta denominazio aldetik aldakiak diren terminoak aldiz, gaztelania eta ingelesezko ordainak erabiliz lortu ditugu.

Aipatu ditugun ordain horiei dagokienez, 1. taula horretan ikus ditzazkegu hainbat adibide. Alde batetik, terminoak eta bere aldakiak dauzkagu eta bestetik, ordea, termino horien gaztelerazko eta ingelesezko itzulpenak. Horien ondorioz, gure lanaren sakontasun maila altuago batera iristea eta, honela, gure betebeharrean informazio gehiago lortzera iritsi gara.

1. taula: Terminoak eta beraien hainbat aldaki, gaztelaniazko eta ingelesezko itzulpenenik batera

TERMINOA	ALDAKIA	GAZTELANIA	INGELESA
banatutako elikagaien freskotasun	banatutako jakien freskotasun	frescura de los alimentos distribuidos	freshness of distributed food
banaketa moderno	banaketa masibo	distribución masiva	mass distribution
hondakinen kudeaketa iraukor	hondakinen kudeaketa jasangarri	gestión sostenible de los residuos	sustainable management of waste

Iturria: norberak egina

Termino-zerrendan geratu zaizkigun terminoen aldakiak lortu ondoren, hauei buruzko azterketatxo bat egitea gure lanarentzat aberasgarria eta interesgarria izango dela pentsatu dugu. Horretarako, terminoen aldakortasuna aztertzea erabaki dugu eta lortu ditugun aldakien azterketaren maila sakonago batera iritsi gara. Aldakortasuna aztertzeko, osatutako zerrendako terminoen aldakiak detektatu dira, lehenagotik esan dugun bezala. Aldaki horiek tesiaren laburpenean agertzen diren aldakiak izanik eta horiek aztertuz, autoaldakortasuna detektatu da. Guztira 30 sarrerek dute aldakiren bat, guztira 32 aldaki daude. Aldaki-mota eta azpimota ezberdinen kopuruak ikus daitezke 2. taula honetan:

2. taula: Autoaldakortasunaren azterketa

Mota	Kop.	Azpimota	Kop.	Adibidea
Aldaki lexikoak	29	Euskarazko hitzen artean	28	<i>ingurunearen hobekuntza/ingurumenaren hobekuntza</i>
		Euskara vs mailegua	1	<i>banaketa moderno/banaketa masibo</i>
Aldaki morfosintaktikoak	3	Izen elkartua vs I + adj	3	<i>barne-faktore psikologiko/barneko faktore psikologiko</i>

Iturria: norberak egina

Azken pauso moduan, gurea den termino-zerrenda hau Terminologia Zerbitzurako Online Sisteman (TZOS) kontsultagai jartzea geratuko litzaiguke, ikusgai egoteko, bai irakasleentzat eta baita adituei eskuragarri jartzeko, eta egindako lana erabilgarria izan dadin.

2. Termino-zerrenda aztertzea

Atal honi dagokionez, termino-zerrendan lortu ditugun terminoen azterketa egin dugu. Lehenik eta behin, terminoak eta haien aldakiak kontatu dira eta, horren ondoren, termino horien azterketa egin, hau da, horiek guztiak zenbat osagaiz osaturik dauden ikusi dugu.

Horrez gain, termino-zerrendako terminologia guztia aldez aurretik TZOSen jasota zegoen ala ez konprobatu dugu Erauzterm termino-erauzle erdiautomatikoa erabiliz. Horren ondoren, gure termino-zerrendako terminologia aurretik TZOSen jasota zegoen konprobatu da Erauzterm termino-erauzle erdiautomatikoaren bitartez. Horrek TZOSen agertzen diren termino oro marka batez adierazten ditu eta baita bakoitza zein jakintza-alorretan agertzen diren ere adierazten digu. Horri esker, gure lanarekin aurrera gindoazela eta balioetsi dugun termino oro aztertzen gindoazela, ikusi dugu nahiz eta aztertzeke geneukan testua nekazaritza-marketinaren barruan egon eta azken hau Ekonomia Zientzien alorrean barneraturik egon, bertan agertzen diren hainbat termino beste jakintza alor batuetan ere agertzen direla (Zientzia Teknologikoak, Historia, Biziaren Zientziak...).

Egindako lan guziaz gain ere, gure azterketa osatzeko asmotan eta informazioa gehitzeko asmotan, termino-zerrendako terminoak eskuz ere begiratu ditugu ea Euskalterm datu-base terminologikoan jadanik jasota zeuden ala ez ikusi ahal izateko.

Azkenik, gure zerrendako terminoak alfabetikoki bakarrik ordenatu beharrean, bi mailatan antolatu ditugu. Alde batetik nekazaritza-marketinaren esparruan zehatzak diren terminoak dauzkagu eta bestetik, ordea, orokorragoak diren terminoak.

3. taula: termino-zerrenda zehaztasunaren arabera mailakatua

Zehatza	Orokorra
agroalimentario	adierazle sintetiko
bertako elikagai	produktu propio
elikagaien jatorri	tokiko nekazari

Iturria: norberak egina

EMAITZA

Atal honen kasuan, azterzeke geneukan testutik, hau da, Miren Begiristain irakaslearen tesiko laburpenetik lortu dugun termino-zerrendako termino guztien azterketaren emaitzak aztertuko ditugu. Alde batetik, gure zerrendako terminoen ezaugarriak aztertu ditugu eta bestetik, ordea, gure termino guztiak TZOSen edota Euskalterm datu-basean aldez aurretik jasorik zeuden terminoekin konparatu ditugu eta ea zenbateraino jasoak eta barneratuak dauden aztertu dugu. Hori guztiari esker, eta daukagun informazio guztia era argi eta zehatzean kokatu nahi izan dugunez, etiketa desberdin bidez sailkatu ditugu aztertu behar izan ditugun terminoak.

1. Osatutako termino-zerrendaren ezaugarrien emaitza

Garaterm lan-ingurunera igotako nekazaritza-marketinari buruzko testutik eta Erauzterm termino-erauzle erdiautomatikoaren bitartez, 1999 termino-hautagai lortu ditugu. Erauzketa-prozesu hori erdiautomatikoa izanik, balioztatze-lanari ekin diogu, hau da, termino-hautagai horietatik guztiak landu eta aztertu behar dugun tesian benetan baliozkoak zaizkigun terminoak eskuz balioztatu ditugu. Prozesu hori amaitzean, aztertutako horien guztien artean 272 termino geratu zaizkigu balioetsirik, horietatik 32 aldakiak izanik, eta gainerako 1759 bazterturik geratu dira. Bazterturik geratu direnen artean aurki ditzazkegu, adibidez, *sistemaren azterketa zehatz, proiektu berri, probetxu maila, eragin positibo...* besteak beste.

Hasiera batean Erauzterm termino-erauzleak erdiautomatikoki atera dituen 1999 termino-hautagaietatik amaieran lortu ditugun 272 terminoetara iristeko prozesua luzea eta zaila izan da. Termino horiek guztiak baztertzeko hainbat arrazoi izan ditugu. Alde batetik, horien guztien bazterketaren zergatia termino-hautagai horien orokortasuna izan da. 1759 hautagai bazterturik geratu dira lantzen ari garen nekazaritza-marketinean zehazten ez direlako, hau da, landu behar dugun marketin mota honetarako orokorregiak direlako eta terminoak orokorrak balira nekazaritza-marketinetik at ere erabiliko lirateke. Hasiera batean hautagaien aukeraketa egiterakoan, 1999 termino-hautagaietatik 448 termino-hautagai izatera jaitsi gara. Kasu horretan gure ezagutzarekin orokorregiak ziren hautagaiak baztertu ditugu eta zerrenda 448koa izatera iritsi da.

Beste alde batetik, bazterzearen beste arrazoia adituaren jakituria edo ezagutza izan da. Hasiera batean, hautagaien aukeraketa egiterakoan, 1999 termino-hautagaietatik 448 termino-hautagai izatera jaitsi da. Adituaren laguntzarekin eta bere ezagutzaz baliatuz, 448tik 272ra jaistera lortu dugu, berak erabaki baitu zehazki termino zein den

edo ez. Egindako lanaren zati hau adituarekin batera eraman dugu aurrera, bere aditutasun maila kontuan izanik, berak du giltza termino den edo ez erabakitzeko.

Adibidez, hizkuntzaren aldetik, *proiektu berri* moduko termino bat, izenaz eta adjetiboz osatua dena, ez da termino izango nekazaritza-marketinean, orokorregia baita eta ez digu balio gure lanerako. Baino, aldiz, alde linguistikotik egitura bera duen *adierazle sintetiko* terminoak balio digu nekazaritza-marketinerako eta, ondorioz, gure lanerako.

Zerbitzu-marketinean, ordea, *produktu berri* terminoa izango litzateke, esparru horretan adituak terminotzat hartzen baitu. Terminotasuna testuinguru espezializatuan aktibatzen da eta adituaren erabilerak erabakitzentzu du termino den edo ez. Honen guztiaren atzean dagoena azaltzeko balio duen arrazoibide teorikoetan ez sakontzea erabaki dugu, baina ondo eta zabal aztertua izan da Terminologiaren Teoria Komunikatiboaren ikuspegitik (Teresa Cabré, 1999; 2001).

Balioztaturik geratu diren terminoak asko direla ikusiz, nekazaritza-marketinean zentratzea erabaki dugu eta, beraz, termino-zerrendarekin zorrotzagoak izan gara, hau da, zehaztasun handiagoz jokatuz eta marketinerako balioko luketen termino guztiak ez balioetsiz, zehazki nekazaritza-marketinerako baliagarriak izango zaizkigun terminoak balioetsiz. Horren ondoren, 272 geratu zaizkigu balioetsirik, 269 termino dira eta gainerako 3ak aditz espezializatuak.

Adierazi dugun moduan, termino guztiak berriaz aztertu ditugu nekazaritza-marketinerako bakarrik balioko luketenak balioetsiz, errepikatutakoak eta oker daudenak kenduz eta aldakiak sarrera bakarrean lotuz. Hori guztia egin ondoren, 272 terminoz osaturiko termino-zerrenda lortu dugu. Zerrenda mota hartako 32 termino beste terminoen aldakiak dira. (ikus osatu dugun terminoen zerrenda I. eranskinean).

Termino guztien konplexutasuna aztertu ahal izateko, termino guztiak osagai kopuruaren arabera sailkatu ditugu. Egin dugun azterketa honetan aldakiak ere kontuan hartu direnez, 272 termino ditugu guztira.


4. taula: Termino-zerrendako terminoen banaketa bakoitzak dituen osagai kopuruaren arabera.

OSAGAI BAT	BI OSAGAI	HIRU OSAGAI	LAU OSAGAI	GUZTIRA
23	129	114	6	272

Iturria: norberak egina

1. grafikoan ikus dezakegunez, terminoen % 8,45 osagai batez, % 47,43 bi osagaiz, % 41,91 hiru osagaiz eta % 2,21 lau osagaiz osaturiko terminoak dira. Kasu honetan, ikus dezakegun moduan indar gehien duten edota osagaien arabera azterturik, esan dezakegu gure zerrendatik termino gehienek bi eta hiru osagai dituztela, honela beraien konplexutasun maila ertaina izanik.

1. grafiko: Termino-zerrendako terminoen banaketa bakoitzaren osagai kopuruaren arabera




Iturria: norberak egina

2. TZOS datu-basearekiko erkaketaren emaitza

Atal honetan, TZOSen aldez aurretik jasota zegoen terminologiarekin egin dugun erkaketa aztertzea dagokigu. Egin dugun lanaren ondorioz lortutako emaitzen arabera, terminoei dagokien zerrendan ditugun 272 terminotik soilik 18 daude TZOSen jasota eta termino guztiak osagai batekoak edota bikoak dira. Modu egokiagoan adieraziz, esan dezakegu termino guztietatik % 6,62 soilik dagoela TZOSen.

2. grafikoa: TZOSen jasota dauden termino-zerrendako terminoak ehunekotan.



Iturria: norberak egina

Bestetik, nahiz eta Miren Begiristainek eginiko nekazaritza ekologikoaren laburpena eta beraz, nekazaritza-marketina Ekonomia Zientzien esparruan kokatu, beste hainbat alorretan ere agertzen dira gure termino-zerrendako zenbait termino.

5. Taula honetan ikusi dezakegun moduan, hamaika alor ezberdinietan kokatu daitezke gure termino-zerrendan barneraturik ditugun terminoak.

5. taula: TZOSen jasota dauden terminoak alor-markaren arabera.

Zientzia Teknologikoak	Lurraren eta Espazioaren Zientziak	Zientzia Juridikoak eta Zuzenbidea	Osasun Zientziak	Biziaren Zientziak	Nekazaritza Zientziak	Pedagogia	Geografia	Kimika	Historia	Fisika
14	15	5	2	6	9	3	1	1	1	1

Iturria: norberak egina


Nahiz eta adierazi berri dugun taula horretan multzo bakoitzean zenbat termino sartzen diren, ez du esan nahi terminoak alor bakar batean soilik erabiliko direnik, termino horiek jakintza-alor batean baino gehiagotan ager daitezke eta. Azaldu berri dugun egoeraren adibide moduan daukagu *lur* terminoa, zein Historiako eta Fisikako multzoan sartzen den; edota *ingurumen* terminoa, non Kimikaren multzoan eta Lurraren eta Espazioaren Zientziak multzoan sartzen den.

3. Terminoen datu-base terminologeekiko eraketaren emaitza

Landu dugun termino-zerrendako terminoak beste konsulta-baliabide batzuetan duten presentzia aztertu eta miatu dugu. Horretarako, lehenagoik aipatu dugun konulta-baliabideaz gain, hau da, Terminologia Zerbitzurako On-line Sistema (TZOS) konulta-baliabidea erabiltzeaz gain, Euskalterm datu-base terminologikoa erabili dugu.

3. grafikoan ikus dezakegunez, gure termino-zerrendatik, soilik, 272 terminotatik soilik 36 daude Euskalterm datu-basean. Modu egokiagoan adieraziz, eta grafikoan ikusiko dugun moduan, termino guztietatik soilik % 13,24 azaltzen da datu-base terminologiko honetan. Termino guztietatik Euskaltermen aurkitu ahal izan ditugunetatik termino orok hitz bat edo bi ditu gehienez, honek erakusten digularik konsulta-baliabide honetan azaltzen diren terminoak, soilik, konplexutasun baxukoak direla. Lan honen ondorioz lortu ahal izango dugu konplexutasun maila hori igotzea eta konsulta-baliabide hauetan azaltzen diren terminoen aberastasuna handitzea.

3. gafikoa: EUSKALTERMen jasota dauden termino-zerrendako terminoak ehunekotan.



Iturria: norberak egina

Adierazitako guztiaz gain, 6. taula honetan ikus dezakegunez, bi kontsulta-baliabideak konparatuz, gure termino-zerrendako termino gehien biltzen dituena Euskalterm da, atzetik TZOSek jarraitzen diolarik.


6. taula: TZOSen eta Euskaltermen jasota dauden glosategiko terminoak.

TZOS	EUSKALTERM
18	36

Iturria: norberak egina

Egoera hau aztertzen jartzen bagara, ikus dezakegu bi kontsulta-baliabide horietan jasota dauden termino guztiak osagai batekoak edota bikoak direla, hau da, konplexutasun txikia duten terminoak direla osaerari erreparatuz jarri zegoen. Beraz, hori horrela izanik ondorioztatu dezakegu, kontsulta-baliabide hauetan barneraturik dauden terminoak konplexutasun gutxikoak direla, eta konplexutasun altuagokoak edo bi hitz baino gehiagoko terminoak ez daudela barneraturik adieraztea beharrezkoa zaigu.

4. grafikoa: Konsulta-baliabideetan jasota dauden termino-zerrendako terminoen kopurua ehunekotan. TZOS eta Euskaltermen arteko konparaketa.



Iturria: norberak egina

Adierazi berri dugun guzia laburbilduz, esan dezakegu termino-zerrendako terminoen osagai kopuruari erreparatuz, terminoak konplexutasun maila ertain-altukoak direla.

TZOSi eta Euskaltermi erreparatuz, ikus dezakegu osagai bat edota bi osagaiko termino gutxi aurkitzen dituztela. Termino gutxi horiek konplexutasun maila baxukoak konsideratzen dira. Datu-base terminologiko horiek aurkitu ez dituzten gaianontzeko termino guztiak bi, hiru edota lau osagaiko terminoak dira eta, beraz, konplexutasun maila ertain-altukoak dira.

4. Termino-zerrendaren sailkapenaren emaitza

Hasieratik adierazi dugun moduan, gure lana edota helburua nekazaritza-marketineko termino-zerrenda osatu, argi eta zehatz bat lortzea zen. Ondoren, lan guztiarekin amaitzean TZOS kontsulta-baliabidera igoko dugu, etorkizun batean edonork, bai edozein ikaslek edota baita edozein adituk ere, gai honetako terminoei buruzko dudarik izanez gero, kontsulta-baliabide honetan bilatu dezakete beraien dudak argitu ahal izateko.

Azterketa hau guztia egiten egon garen bitartean lanaren eta terminoen zehaztasuna bilatzen genuen, hau da, bai lan guztiak eta baita termino zerrendak ere ahalik eta zehaztasun gehien izan zean bilatzen genuen. Hori horrela izanik eta Mirene Begiristainen laguntzarekin, gure lanaren zehaztasun puntuoa beste maila batera eramatea lortu dugu. Gure termino-zerrenda hartu eta bi mailatan banatu dugu; alde batetik, termino zehatzak dauzkagu, non nekazaritza-marketinaren esparruaren barruan gure zerrendatik hainbat termino zehatzagoak diren besteak baino. Bestetik, termino orokorrak dauzkagu, non lehenagotik esan dugunaren aurkakoa den, hau da, nekazaritza-marketinaren esparruaren barruan gure zerrendako terminoetatik orokorragoak direnak sartzen dira.

Termino zehatzagoen barruan sar ditzakegu, adibidez, *banaketa-ereduaren gurpil, banaketa-politikaren datu edota elikagai ekologikoaren eskuragarritasun*, beste hainbat gehiagorekin batera. Orokorragoen barruan, ordea, baserri-kulturaren *transmisió, sektore espezifikoetako marketin* edota *nekazaritza-sektorearen atomizazio* aurki ditzazkegu, besteak beste.

EZTABaida

Lanarekin aurrera joan garen heinean lortu ditugun eta ondoren adierazi ditugun nekazaritza-marketineko termino errealekin, 272 termino dituen zerrenda sortu dugu. Termino horiekin batera, hauen gaztelaniazko eta ingelesezko ordainak ere lortu ditugu, baita beraien aldakiak ere, kasu honetan zerernda osotik 32 direlarik. Lan honen azken pausoan, termino-zerrenda luze eta garatu hau TZOSen kargatzea geratuko litzateke, egin dugun lana besteentzat eta baita guretzat ere erabilgarria eta lagungarria izan dadin.

Lanaren hasieratik, Erauzterm termino-erauzleak *Nekazaritza ekologikoaren elikagaien banaketa politikaren kudeaketa iraunkorra: adierazle sistema holistikoa agroekologikoaren proposamena* tesiaren laburpenetik 1999 hitz erauzi ditu. Zerrenda luze horretatik hasita gure balioztapena egin dugu, gure lanerako behar izango ditugun eta nekazaritza-marketinean zehazten hasten diren terminoak aukeratu ditugu. Aukeraketa hori gai honi buruzko gure ezagutzarekin egin dugu, lau urteetan zehar ikasi dugunarekin eta barneratu dugunarekin balioztaturik geratu zaizkigu, honela, hasiera batean zeuden 1999 termino-hautagaitik 448 termino-hautagai izatera jaitsi gara. Ondoren, zerrenda laburrago hau hartu eta gaiari buruzko adituaren laguntzarekin oraindik eta zerrenda zehatzago bat lortu dugu, 488 termino izatetik 272 termino izatera pasatuz.

Esan beharra daukagu, hala ere, 1759 termino-hautagai baztertzea ez dela batere erraza izan, baina bi bide jarraitu ditugu hori egin ahal izateko. Lehenengo bidea guk dakigunarekin eta ikasi dugunarekin gai honen barruan orokorregiak diren terminoak baztertzea izan da, hau da, nekazaritza-marketinean zentratzen ez direnak baztertzea. Bigarren bidea, ordea, gure ezagutzak maila altuagorik ez duenez eta hori horrela izanik aurrerago jarraitu ezin izan dugunez, tesiaren sortu duen adituaren laguntzarekin, hau da, Miren Begiristainen laguntzarekin lortu dugu. Honek bere maila altuko ezagutzaren bitartez erabakitzentzien lagundu digu terminoen zerrenda erreala lortzen.

Lortu dugun termino-zerrendaren azterketaren hasieran esan beharra dago, lehenik eta behin, termino guztien konplexutasuna aztertu dela osaeraren aldetik, alegia zenbat osagai dituzten. Datuek diotenaren arabera, terminoen % 8,45 osagai batez, % 47,43 bi osagaiz, % 41,91 hiru osagaiz eta % 2,21 lau osagaiz osaturiko terminoak dira, beraz, esan daiteke konplexutasun ertain-altuko terminoak direla. Izan ere, unibertsitateko irakasle baten tesiaren laburpena izanik, terminologiaren konplexutasuna maila altukoa izatea espero da (3 eta 4 hitzeko terminoak agertzea), tesiaren laburpen bat izanik, bertan erabilitako terminologia gaiarekiko zerikusi handia duten terminoak izango baitira.

Ondoren, hurrengo pausoari hasiera emanez, gure zerrenda luzeko terminoak TZOSen zenbateraino jasota zeuden begiratu dugu. TZOS terminologia erreala ikusgai egiteko diseinaturiko datu-basea dela kontuan hartuz, gure glosategiko 272 termino errealetatik, TZOSen soilik 18 termino bakarrik jasota daudela ikusi dugu, non terminoen % 6,62 soilik den, eta termino guztiak osagai batekoak eta bikoak direla. Arazo horren arrazoia, TZOSen termino-zerrenden falta da, hau da, TZOSen oraindik ez daude gai honi

buruzko edota inguruko termino-zerrenda kargaturik. Hala ere, eta arazo horri konponbidea emanez, pixkanaka-pixkanaka fakultate eta gradu ezberdinak irakasgaien termino-zerrendak eta baita fakultate horietako adituen eta irakasleen tesietan erabilitako termino-zerrendak TZOSen kargatu ahala, geroz eta termino erreale gehiago izango ditugu datu-base terminologiko honetan kontsultatu ahal izateko.

Aurreko guztiaz gain, nahiz eta nekazaritza-marketina Ekonomia Zientzien alorrean barneraturik egon, TZOS datu-base terminologikoan beste alor batzuetan jasota dauden terminoak ere azaldu dira gure zerrendan, beste 11 jakintza alorretako terminoak hain zuzen ere: Zientzia Teknologikoak (14 termino), Lurraren eta Espazioaren Zientziak (15 termino), Zientzia Juridikoak eta Zuzenbidea (5 termino), Osasun Zientziak (2 termino), Biziaren Zientziak (6 termino), Nekazaritzaren Zientziak (9 termino), Pedagogia (3 termino), Geografia (baserri), Kimika (ingurumen), Historia (lur) eta, azkenik, Fisika (lur). Aipatzeko da termino batzuk alor batean baino gehiagotan agertzen direla TZOSen, hori honela izanik eta gure lanerako aberatsagoa izango dela pentsatuz, horiek guztiak kontuan hartu ditugu.

TZOSen azterketarekin amaitu ondoren, jasotako terminologia errealkak Euskalterm datu-basean duen presentzia aztertu dugu. Euskalterm izeneko datu-basean, Terminologia Batzordearen bermea duen terminologia ofiziala kontsulta dezakegu eta gure termino-zerrendari dagokionez, 36 termino erreale azaltzen dira 272 terminoko termino-zerrendatik, honek % 13,24ko garrantzia duelarik bakarrik, eta gutxi horiek osagai batekoak eta bikoak dira.


Adieraztekoa da osagai bat eta bi osagai baino konplexutasun handiagokoak diren termino errealkak ez direla ez TZOSen eta ez Euskaltermen jasota agertzen, eta termino horiek guztiak esanguratsuak direla nekazaritzaren esparruaren barruan.

Horren adibide moduan hauek ditugu: *adierazle-sistema agroekologiko, agroekologiaren dimensio ekologiko, adierazle-sistemaren proposamen, banaketa agroekologikoaren sektore...* Hau guztsia kontuan izanik, eta bi kontsulta-baliabideetan jasota dagoen termino errealen kopuru txikia ikusirik, gure lanak duen garrantzia oso argi ikusten dugu, hau da, begi bistakoa geratzen da terminologia erreala, hiztegiak sortzen dituztenek, aztertutako kontsulta-baliabideak egiten dituztenek, adituek... kontuan har dezaten.

Azkenik, lehenago adierazi dugun moduan, gure termino-zerrendako terminoak bi maila ezberdinan banatu ditugu. Alde batetik, lantzen ari garen nekazaritza-marketin honen eremuan zehatzagoak diren terminoak egongo lirateke, adibidez: *agroekologia, banaketa-eredu koblentzial, ikuspegi holistiko-agroekologiko...* Bestetik, ikertzen ari garen eremu honetan orokorragoak diren terminoak izango genituzke, adibidez: *adierazle-sistemaren praktika, baliabide mugatu, barazki...* Termino-zerrenda honen mailakatzea aztertzea ere egokia litzatekela pentsatuz, hauei buruzko azterketa bat egin dugu, lehenagotik dugun informazioari sakontasun maila altuagoa emanik. Alde batetik, marketin esparru honetan zehatzagoak diren terminoak dagokienez, esan dezakegu 148 termino zehatz aurki ditzazkegula, termino guztiak % 61,67 izanik. Bestetik, orokorragoak diren terminoak dagokienez, esan dezakegu 92 termino orokor aurki ditzazkegula, guztiak % 38,3 izanik. 5. grafikoan ikus dezakegun moduan, bi mailen

arteko ezberdintasuna nabarmena dela begi bistakoa da, zerrenda osotik pisu gehien duten terminoak termino zehatzak direlarik.

5. grafikoak: termino-zerrendako maila ezberdinak terminoen kopurua



Iturria: norberak egina

ONDORIOAK

Hilabete hauetan guztieta zehar egin dugun lanaren ondoren lortu dugun nekazaritza-marketineko termino-zerrenda eleanitzun hau bai gaur egun eta baita etorkizunean ere erabilgarria izango dela pentsatzen dugu, bai irakasle euskaldunen arteko komunikazio sareak sortzeko eta baita hiztegiak egiten dituztenentzat, adituentsako, aztertutako kontsulta-baliabideak egiten dituztenentzat... terminologia erreala kontuan hartu ahal izateko.

Egin dugun lan oso hau praktikara eraman ahal izateko, TZOSEN kontsultagai jartzeaz gain, irakasleen artean zabaldu daiteke, eta etorkizun batean, marketineko beste edozein irakaslek edota esparru honetan sartzen den beste edozein adituk erabili ahal izango du. Gainera, lehenagotik adierazi dugun moduan, marketineko beste antzeko irakasgai batekin edota nekazaritza ekologikoari dagokion beste edozein testu espezializatuekin alderatu daiteke, bertako terminologian egon daitezkeen ezberdintasunak aztertzeko. Lan hau egin ahal izateko hainbat esparrutan aditu diren bi irakasleen laguntza izan dugu, alde batetik, Miren Begiristainen laguntza, non marketinaren esparruan aditua den, eta, bestetik, Jose Mari Arriolaren laguntza, non euskararen esparruan aditua den. Bi horiek batera lortu ahal izan dugu termino-zerrenda hau, baina kontuan hartu beharra dago egindako lan hau lehen proposamen bat dela.

Hasieran genituen 1999 terminotatik lortutako 272 terminoko termino-zerrenda hau etiketa bidez sailkatzea ahalegina egin dugunez nekazaritza-marketineko edukiak hobeto ulertzeko, egunen batean beste norbaitek ere horrelako sailkapena egitea egokia litzateke eduki berdinak barneratu dituen edo ez ikusteko. Gainera, lan hori beste norbaitek eginez gero eta, agian, gai honi buruz ezagutza gehiago izanez gero, terminologia errealaen zabalkuntza lortu ahal izango du, hau da, marketinaren esparru honetako termino gehiago lortuko lituzke eta, ondorioz, terminologia zehatzagoa eta informazio gehiagokoa lortuko genuke.

Lan hau egin ondoren adieraztea dagokigu hasiera batean nekazaritza-marketinaren inguruan zegoen terminologia errealaen falta eta horri buruz dudarik izanez gero arazo horiek argitzeko baliabide falta. Lanarekin aurrera gindoazela, pixkanaka konturatzen joan gara euskararen termino errealaen eskasiaz, non egoera askotan termino baten esanahiaz edota erabileraz ezagutza falta dugunean ezin baitiogu egoera horri irteera egoki bat eman. Gainera, gure esfortzuaren bitartez ere ikusi dugu egunerokotasunean gai honi ematen zaion garrantzia urria eta, ondoren, testu espezializatu bat edota gaiaren inguruko ezagutzak barneratu behar ditugunean zein nolako garrantzia duen erabiltzen den terminologiak. Horregatik, lan honen bitartez hemendik aurrera terminologia errealaen falta duen orok, TZOSEN kontsulta dezake nahiz eta bertan informazio guztia ezin izango dugun izan, baliabide hori lantze-bidean dago eta.

BIBLIOGRAFIA

Arregi, X., Arruarte, A., Artola, X., Lersundi, M., Santander, G., Umbellina, J. (2010). TZOS: Terminologia Zerbitzurako Online Sistema. In *Ugarteburu Terminologia Jardunaldiak: euskararen garapena esparru akademikoetan*; Alberdi, X., Salaburu,P.,Ed.UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua: Bilbo; 136-153 or.

Begiristain, M. (2016). *Nekazaritza ekologikoaren elikagaien banaketa politikaren kudeaketa iraunkorra: adierazle sistema holistiko-agroekologikoaren proposamena*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia.

Cabré, M.T. (1999). *Hacia una teoría comunicativa de la terminología: aspectos metodológicos. La terminología. Representación y comunicación*. Bartzelona: Institut Universitari de Lingüística Aplicada, Universitat Pompeu Fabra.

Cabré, M.T. (2001). *Sumario de principios que configuran la nueva propuesta teórica*. In M.T. Cabré & J. Feliu (arg.), *La terminología científico - técnica* (17 - 26); Bartzelona: Institut Universitari de Lingüística Aplicada, Universitat Pompeu Fabra.

Oyarzabal, Y. (2016). *Zerbitzu marketineko terminologiaren azterketa*. GRAL, Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia.

San Martin, I. (2013). Terminologia sareak Ehunduz: unibertsitateko ikasgeletan erabiltzen den terminologia ikusgai egin nahi duen programa. In *Ugarteburu terminologia jardunaldiak (V). terminología naturala eta terminología planifikatua euskararen normalizazioari begira*; Alberdi, X. eta Salaburu, P. Ed. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua; Bilbo; 20-32 or.

Zabala, I., Lersundi, M., Leturia, I., Manterola, I., Santander, G. (2013). GARATERM: euskararen registro akademikoen garapenaren ikerketarako lan-ingurunea. In *Ugarteburu terminologia jardunaldiak (V). terminología naturala eta terminología planifikatua euskararen normalizazioari begira*; Alberdi, X. eta Salaburu, P. Ed. UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua; Bilbo; 98-114 or.

1. ERANSKINA

